

ABERTZALEAK BATUTA ALA SAKABANATUTA?

Poz aundi bat artu gendun abertzaleak gure Lege-Batzarrean alkartuta ikusteagaz, baiña ez da izan iraunkorra gure poza, zori txarrez.

Elburu batek alkartu ginduzan: gure aberria bere buruaren jabe ikusteko itxaropenak, baiña artu ziran bideak luzeak zirala, astiroegi giñoiazala, uste eben izkilludunak eta bake-aldiak etena izan eban, apurtu egin eben, barriro be ain kaltegarri jakuzan erailketak agertu ziran gure errira.

Egoera onetan EH'ri alderdi españatarrek ilketa orreik "kondenatzeko" eskatu eutsoen. Ez zan naikoa "min emon dauskue" edo olako zerbait esatea, ez zan naikoa

ez da ETA'gaz alkartzeagatik! ETA sortu baiño askoz lenagoko guraria da au.

Orretan alkartuta egonik, zer da banatzen gaituna? Ori lortzeko bideak zeintzuk diran edo epea zein izan daiteken. Orra or banatzen gaituan arazoa! Ezin ete leike alkartasun batera eldu arlo orretan? Gure arerioak pozik dagoz gu bananduta ikusi ezkerro. Alkartu gaitzean ba! Eta ez dagiela esan EH'gaz alkartu ezkerro ez gagozala demokrazi-bidean. Ori ez da orrelan. EH legezko alderdia da eta legea beteten ez ba'dau arerioak izango dira lenengoak lege-kanpo ipinten, baiña legezkoa dan artean itzi beiskue alkartzen. Guk alkartasuna ez daigun apurtu sekula!

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (3.000 pezeta) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 3.000 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

"alkar-izketaren bidea artu dogu" esatea. "Kondenatu" esan bear zan. Eta iñoren esanera egoteko gertu ez dagozanak, ez dabe esan gura itz ori.

Zein izan da ondorena? Lenengo, EAJ ta EA izukeri-zaleakaz batera dabiltzala eta ez dirala demokratikoak esatea. Alderdi oneik "kondenatu" esan dabe, baiña ez da naikoa, besteakaz ezelako artu-emonik cz eukitea eskatzen dabe. Eta bigarren ondorena txarragoa izan da: Alderdi bi orreik erakunde barriak sortzeko bidetik ez doazela esanaz EH'k laguntza ukatu dautse eta gure Lendakaria 27 aldunegaz egoera larrian itzi dabe.

Eta egoera onek beste ondoren txar bat ekarri dau. Alderdi españatarrek Ibarretxe gure lendakaria kendu egin gura dabela diñoie bear dauan beste laguntza ez daukalako. Barriro auteskundea egitea eskatzen dabe. Euren ustez urrengo lendakaria Iturgaitz edo Mayor Oreja izango da. Au bai egoera negargarria! Lendakaria kendu baiño lenago ez ete dira etorriko EH'koak curen laguntza emoten? Eta etortekotan zeintzuk izango ete dira baldintzak? Dana dala, lau urteko epean ikusiko genduke zelakoak diran agintari españatarrek.

Gauzatxu batzuk gogoratu daiguzan: Alderdi abertzale guztiak dauken elburu bakarra Askatasun osoa da eta au

Eta kanpotik etorriak zareenok, ez izan bildurrik. Euskaldunok onartuak izan gara munduan eta geuk be datozenak onartzen doguz. Alkartuta atera daigun aurrera erria.

Eritxi batzea edo "referendum" eskatzen dabe batzuk: abertzaleak, EB'k eta PSE'ko gazteak. Egin beite! Baiña au ez aitzu: Guk irabaziko dogula uste izan arren, eurak be bai, eta orregaitik ez dabe nai ori egiterik, galduko ba'gendu be ez uste izan betiko danik ezetz ori. Urte batzuk barru barriro egin bearko litzake, bein eta barriro, epe izendatueta. Ori eskatzen dau demokraziak eta orrelan egiten da toki askotan, baiña emengo demokrazia laburtxua da. Gu Erria gara eta erri lez erabagiak artzeko eskubidea daukagu. Au ez dabe ukatu bear gaur arerio jakuzanak: Guztiak aintzat eta ontzat artu bear dabe emen erri bat dagoala, Frantziaren eta España'ren artean banatua eta Naparroa barru dala, "zazpiak bat"ek osatzen dauana. Ori onartzen danean, erriak esango dau zein bide artu jaurketa-bidean, politikan: Zazpiak batera ala orain lez ala beste buru-jabetza batzutan... Beti erria aintzat artuta!

OLAZAR'tar Martin